



ORRI-MARKATZAILE SOLIDARIOAK

15. edizioa 2023

FITXA DIDAKTIKOA





Izena

Evhenia

Adina

6 urte

Herrialdea

Ucrania

Ametsa

Diseinatzailea izan nahi dut eta txakur bat, harekin jolasteko

EZAGUTU ZERTXOBAIT GEHIAGO EVHENIAREN BIZITZA

“Txakur bat eduki eta diseinatzaile izan nahi dut” dio 6 urteko Evheniak hunkituta, eta munduan gehien gustatuko litzaiokeena arropa dibertigarri eta polita diseinatzea izango litzakeela dio. Neskato hau eskolara joaten zen, parkean jolasten zuen bere laguntxoekin, etxean jostailuak zituen, azken finean, bere munduan gauza bakoitza bere tokian zegoen, baina dena atzean utzi behar izan zuen Ukrainan gerra piztu zenean.

Bere familiarekin Berdiansketik Zaporizhzhia joan behar izan zuen, han bizitza berri bat hasteko. Evhenia Haurrentzako gune seguru batera joaten da astean behin baino gehiagotan, bertan berriro ere haur izatera itzultzeko, jolastu, dantzatu eta esperientzia normalizatuak bizitzeko. Udalekueara joatearen antzekoa da. “Paseatu egiten dugu, korrika egin, jolastu, askotariko lehiaketak egiten ditugu. Izugarri gustatzen zaizkit lehiaketak! Eta marrazkiak egin ditzaket, moda-diseinatzaile izatea izugarri gustatuko litzaidakeelako.”

Evheniaren ametsak egia bihurtzen dira bere lagunarekin jolasten duen bitartean; adibidez, kafetegia dute, eta jolasteko duen eskubide hori guen seguru eta babestu batean dagoenean soilik gauza dezake. Bertan, ber sormena gara dezake, beste haur batzuekin sozializa daiteke eta gerraren moduko egoera arriskutsuetatik urrun daiteke.

Ukrainaren kokapen geografikoa dela eta, historian zehar beti gune estrategikoa izan da; duela urtebete baino gehiago hasi zen gerra herritarrek bizi dituzten tentsioen eta milaka neska-mutilei eragiten duten beste kapitulu bat besterik ez da. 2014an tentsioak gogortu egin ziren eta Save the Children orduz geroztik ari da lanean herrialdean.

Proposatzen dizkizuegun **jarduera hauen bidez**, egun batetik bestera bizitza aldatu zaien eta berriz ere lehen bezain seguru noiz izango diren ez dakitela babesgabe dauden milaka neska-mutilen egoerari buruz sentsibilizatu nahi ditugu zuen ikasleak.

Jarduera horiek egin eta gero, gelan atera diren ideiekin eta ikasleek egindako hausnarketekin **apain ditzakezue orri-markatzaileak**. Orri-markatzaileak pertsonalizatzeko modua lagungarria izan daiteke orri-markatzaileetako protagonisten antzeko neska-mutilei buruz gelan ikusi dutena familiako kideei kontatzeko.



HELBURUAK

- Irakurmena sustatzea proposatutako bizitza-historien bidez
- Inguratzen dituzten ingurunea ezagutzea, beste ingurune batzuekin konparatuta.
- Ikerketa-tresnak sustatzea
- Irakurmena eta idazmena bultzatzea, proposamen didaktikoen bidez.
- Elkartasunaren balioa sustatu eta garatzea ezagutzaren bidez, eta praktikara eramatea eguneroko ekintzetan.

Proposamen hauek ikasleen ikasketa-mailaren arabera egiteko pentsatu dira, baina zuen taldera hoberen egokitzeko moduan molda ditzakezue.

HAUR-HEZKUNTZA

Bazenekiten jolastea neska-mutil guztien eskubide bat dela? Jokoaren bidez gauza asko ikas ditzakegu, gainerakoekin erlazionatzen gara eta, ohar zaitezte Evheniarentzat, amets bat dela, ziurrenik, bizi den egoerarengatik arduratuta dagoelako. Zein uste duzu dela bere jolas gogokoena? Asanbladan guztiok jolasteko gehien gustatzen zaigun jolasa aukera dezakegu, eta jolastera! (Irakasleak Ukrainako jolas tradizional bat erakuts diezaguke, jolas hartan jolasteko).




LEHEN HEZKUNTZA

Jolasaren horma-irudi handi bat sortuko dugu, jolastea haur guztien eskubide bat delako. Guztion artean horma-irudi horretan gure jolas gogokoena irudikatuko dugu, eta Evheniak zertara jolas dezakeen iruzkindu dezakegu, edo zer esango zeniketen, nola azalduko zeniketen zuen jolas gogokoena zuekin jolas dadin. Zuen jolas berak gustatzen zaizkiola uste duzue?

BIGARREN HEZKUNTZA

Ukrainako gerrari buruzko albisteak asko aldatu dira denboran zehar, edo hobeto esanda, albisteen maiztasuna aldatu da. Duela urtebete, informazioa konstante da, baina orain, gatazka honi buruzko albisteen denbora murriztu egin da. Bildu duela urtebeteko albisteak, duela sei hilabetekoak eta oraingoak, eta eztabaidatu albiste horien maiztasunari buruz, gertatzen ari zenari buruzko nolako informazioa ematen ziguten, haurrak albiste horien protagonista ote ziren eta abar.



ESAN BAI BAKEARI

Badakigu zein garrantzitsua den gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketan eta enpatian oinarritutako kultura bat bultzatzeko heztea. Save the Children-en ekintzaren protagonista diren, mundua aldatzeko mobilizatzen diren eta elkartasunean, errespetuan eta bakearen kulturaren hezi diren ikasleengan sinesten du.

**Mobiliza zaituz ikasleekin
apuntatu zaren ekintzak eginez.
Ikastetxeen uholde bat behar dugu
BAKEARI BAI ozen oihukatzen.**



**MUGITZEN BAZARA,
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



Save the Children